# munduak guztiontzat beharko luke

## JUNEREN HEGOAK

Patakonek eta Ane Piratak gustuko dute parkea. Ane Piratak lagunak egitea maite du, eta Patakonek han inguruan izaten diren askariak dastatzea. Gaur oso tximeleta bereziak ezagutu dituzte.







BARKATU. HAIN ASKARI GOXOA ZENUEN...
EZ ESKATU BARKAMENIK. DAGOENA DENON ARTEAN PARTEKATU BEHAR DA.
EGIA AMA. PATAKON, JAN LASAI NAHI DUZUNA... TXANTXETAN ARI NINTZEN.
KAMIXETA POLITA DARAMAZU. BAINA, ZEIN DA JUNE? HEGOAK AL DITU?
JUNE GURE LAGUNTXO BAT ZEN. DUELA URTE BATZUK GAIXOTU EGIN ZEN ETA HEGAN JOAN EGIN ZITZAIGUN.
HEGORIK EZ ZUEN, BAINA BEGI HANDI PAREA ZUEN. GAUZA GARRANTZITSUAK BAINO IKUSTEN EZ ZITUENA. ETA HAIEKIN HEGAN EGITEN ZUEN.



JUNEREN HEGOAK ELKARTE BAT DA, EZTA?
BAI, JUNE GAIXO EGON ZEN ERIETXEAN ETA BEREN GURASOEK, ALABATXOAREN ERITASUNAZ HARATAGO, HAN INGURUAN ZEUDEN FAMILIA ASKOREN EGOERA KASKARRA IKUSI ZUTEN.
ETA JUNE HEGAN JOAN ZENEAN FAMILIA HORIEI LAGUNTZEKO ZERBAIT EGITEKO BEHARRA SENTITU ZUTEN.
IZAN ERE, ETXEKO TXIKIAK GAIXO EGOTEA GOGORRA DA. ETA ARE GOGORRAGOA EGOERA HORRETAN BESTELAKO GABEZIAK IZATEA; DIRU ESKASIA, DENBORA FALTA, BAKARDADEA...
JUNEK BEZALA, BERE GURASOEK BEGI HANDIAK DITUZTE. ETA BEREN TRISTURATIK HARATAGO BEHAR HORIEK IKUSTEKO MODUA IZAN ZUTEN. ETA ELKARTEA SORTU.
ETA ZER EGITEN DUZUE ELKARTEAN?




juneren hegoak .org

Juneren Hegoak elkarteak babes sare bat josi nahi du seme-alabaren bat gaixorik duen eta egoera zaurgarrian dagoen familiari laguntzeko. Baliabide eskasia desberdinei eman nahi die erantzuna, izan ekonomikoa, soziala, antolaketa mailakoa... behar duenaren ondoan egotea da helburu nagusia.



Elkartea borondatezko lanean oinarrituta dago. Bakoitzak ahal duen moduan parte hartzen du; erietxera laguntzen, etxeko beste haurrak zaintzen, dirua eskaintzen, babes emozionala ematen...



info@junerenhegoak.org
www.junerenhegoak.org
Helbidea: Martin Etxeberria 15-behea, 20100 Orereta, Gipuzkoa.